

Asteazkenean lan-poltsak ireki eta eguneratzeko zirriborroa bidali ziguten. Sailaren arabera, oraingo ebazena aurrekoen antzekoa da. Hau da, lan-poltsak irekiko dira, zerrendetan egonik, aldaketak (hizkuntza-eskakizuna agertu, titulazio berriak, herrialdeak...) egin nahi dituztenentzat; eta 2011ko oposizioan azterketaren bat gainditu edo lehendabiziko ariketan 0 puntu baino gehiago atera zutenentzat.

Zirriborroa jasotzean LABen sinestuta geunden alegazioak egiteko epea irekiko zela; baina, sailak dio ezetz, aurreko aginduen kopia dela eta euren asmoa jakinaraztea baino ez zela izan.

2011ko oposizioa jarri dute erreferentziatzat. Zer gertatu da bada 2013ko EPErekin (kudeatzaileak baino ez), ahaztu nahi ote dute? Betiko lez, oztopoak jartzen.

Alegazioak aurkeztekero balio ez duten zirriborroak, ez dute aintzat hartzen burutatako azken EPE... Izan ere, inoiz gertatu da: zirriborroa aurkeztu eta gero behin betiko ebazenak bestelakoak jartzea.

Ez dute esan noiz argitaratuko den agindua, ezta noiz ireki nahi dituzten lan-poltsak; laster izatea nahi omen dute. Berriro eskatu dugu 2013ko oposizioa kontuan hartzeko.

Bestalde, beste behin ere erabaki du sailak bitarteko langileak proposatu eta izendatzeko 2010eko irailaren 16ko Aginduan izandako azken aldaketa (aurtengo ekaina) aprobetxatzea euro batzuk aurrezte aldera. Hainbat kasutan kargutik kendu eta handik tarte batera berriro izendatuko dituzte, non eta lanpostu

El miércoles nos hicieron entrega de un borrador para la apertura y actualización de las bolsas de trabajo. Según el departamento, la orden será igual que otros años. Es decir, se abren las bolsas para que toda aquellas persona que, formando parte de las listas, deseen hacer cambios (inclusión de perfil, de titulaciones, de territorios...); y para quienes hayan aprobado algún examen o hayan obtenido más de 0 puntos en el primer ejercicio de la oposición de 2011.

Al recibir un borrador, LAB entendía que había plazo para alegar, aunque el departamento dice que no, que es prácticamente una copia de las anteriores órdenes y se trata únicamente de poner en conocimiento.

Consta 2011 como oposición de referencia. ¿Qué pasa con la OPE de 2013 (sólo Gestión), se la quieren ahorrar? Como siempre, fastidiando.

Borradores que no sirven para alegaciones; no tienen en cuenta la última OPE ya concluída... Bueno, ya ha ocurrido más de una vez: presentarnos un borrador y la resolución definitiva decir otras cosas.

No han puesto fecha para la publicación ni la apertura, aunque aseguran que será en breve. Hemos insistido en que tengan en cuenta la oposición de 2013.

Por otra parte, el departamento, una vez más, ha decidido aprovechar la oportunidad que le brinda la última modificación (junio de este año) de la Orden de 16 de setiembre de 2010 para la propuesta y nombramiento de personal interino con el fin de ahorrarse unos

berberetan. Hori gutxi balitz, behartuko dituzte opor eta bestelako egunak zesatu baino lehen hartzera. Bada, ez zen hori hasieran esan zigutena. Ikusten duzuenez, zentzugabekeriak ez du etenik sail honetan.

Esan digute kasuan kasuko azterketa ari direla egiten, langileei esan ahal izateko noiz utzi behar duten plaza. Kasuistika anitza da eta asteazkenean argitaratu zuten oharra kasu orokorretarako da. Ikusi behar oraingoan hitza beteko duten eta langile guztiekin jakitea izango duten noiz zesatu; osterantzean, berriro hasi beharko genuke erreklamazioak eta errekurtoak aurkezten.

PD. Oraintxe jaso berri dugu 2013ko EPE aintzat hartzeko egin dugun eskaerari emandako erantzuna. Ezetz diote, derrigorrezko ikastaroa bukatu eta posesioa hartu arte ez dagoela zer eginik.

Egia da aurrekoetan horrela jokatu dutela eta horrexegatik eskatu dugu aldaketa. Hautatze-ikastaroak ez dauka inolako eraginik bitarteko langileei oposizioko ariken emaitzak kontuan hartzeko; proposamenerako eta izendapenerako aginduak onartzen dituen puntuak dagoeneko jakinak dira egun, urriaren 13ko BOEn argitaratu baita gainditu dutenen behin betiko zerrenda; eta, ikastaro praktikoan aldaketak egonda ere, lan-poltsetan ez litzateke nabarituko.

euros. En algunos casos, van a cesarles para nombrarles un tiempo más tarde... en el mismo puesto. Además de obligarles a coger las vacaciones, los días de exceso... antes del cese. No fue precisamente esto lo que nos dijeron en un principio. Como veis, siguen los despropósitos con este departamento.

Ahora nos dicen que están analizando los casos uno por uno, con el objetivo de anunciarles cuándo van a cesar. La casuística es variada y la nota que publicaron el miércoles sirve para la norma general. Esperemos que esta vez cumplan, y que cada uno sepa cuándo cesar, de lo contrario nos veremos de nuevo abocadas a presentar reclamaciones y recursos.

PD. Acabamos de recibir la respuesta a la petición de incluir la OPE de 2013. Dicen que hasta que no se realice el curso preceptivo y tomen posesión no hay nada que hacer.

Efectivamente, así han actuado anteriormente y por eso hemos pedido la modificación. El curso selectivo no tiene repercusión a la hora de tenerle en cuenta al personal interino el resultados de los ejercicios; los puntos que la orden de propuesta y nombramiento reconoce ya se saben a día de hoy, puesto que el día 13 de octubre se ha publicado en el BOE la relación definitiva de personas aprobadas; y, por mucho que eso cambie con las prácticas, no va a influir en las bolsas.

>justizia

